

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA OSPATZEKO EKITALDIAK

ARABAKO ESIan

Euskararen Astea, azaroaren 28tik 30era:

- **28an, Porrotx**, «Zatoz gurekin jolastera!», Txagorritxu egoitzako 1. solairuan, pediatriako unitatean, 10:00etatik 12:00etara.
- **29an, OSAGAIZ** aldizkariaren eta **Oihaneder** Euskararen Etxearen aurkezpena, Erizaintza Unibertsitate Eskolako ekitaldi-aretoan, 17:00etan.
- **30ean, III. Bertso-saioa**, Felipe Zelaieta eta Juan Mari Juaristi bertsolariak Erdizka tabernan, 15:00etan.
- **30ean, Kantaraba eta Crescendo abesbatzak**, Santiago egoitzako ekitaldi-aretoan, 19:30ean.

BARAKALDO-SESTAOKO ESIan

Abenduaren 20an, «Euskararen erabilera bultzatzeko jarduerak. Mila esker langileei» ekitaldia, San Eloy Ospitaleko bilera-gelan, 2. sotoan, 14:00etatik 15:00etara.

BIDASOKO ESIan

Abenduaren 1ean, Kantu-afaria, 20:00etan Hondarribiko Oilurta Azpi erretegia.

BILBO-BASURTUKO ESIan

Abenduaren 1ean, 12:00etan, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko gobernupabiloian, Anboto bilera-gelan:
[Narrazio laburren txapelketaren saria ematea.](#)

DEBABARRENEKO ESIan

Abenduaren 1ean, 10:00etatik 11:30era, Mendaroko ospitalean:

- **Mintzanet** programaren aurkezpena.
- **Mintzodromoa**. Helburua: ESIan euskaraz lan egiteko proposamenak eta ideiak partekatzea, garatzea eta lantzea.

DEBAGOIENKO ESIan

- **Orri-banatzailak** banatuko dira pazienteen eta bisitarien artean eta zenbait kartel ere jarriko dira, Euskararen Egunari begira beren-beregi eginak.
- Asteburu osoan **euskarazko musika** baino ez da jarriko ospitaleko hari musikalean.
- **Abenduaren 1ean**, barikua, goizeko 8,30etan Arantzazu gelan Jose Antonio Aspiazu historiagilearen **hitzaldia**: «Kooperatiben Arrasate baino askoz ezagunagoa XVI. mendeko Arrasate munduan zehar».

DONOSTIALDEKO ESIan

Abenduaren 4an, 13:00etan, Donostia Unibertsitate Ospitaleko ekitaldi-aretoan:

- **II. Euskara Planaren ebaluazioaren ondorioen aurkezpena.**
- **OSAGAIZ** osasun-zientzien aldizkari berria aurkeztea.
- **EUSLE** programaren ibilbidea Getariako osasun-zentroan.

EZKERRALDEA ENKARTERRI GURUTZETAKO ESIan

- **Abenduaren 1ean**, 8:30etik 9:30era, ospitaleko areto nagusian, **Euskarazko Ezohiko Saio Klinikoa**: «Jendaurrean eraginkortasunez hitz egiteko gakoak». Hizlaria: Aurkene Redondo Ikazuriaga (Enbor Kontsultoreak).
- **Argazki-lehiaketa**. Gaia: *Euskara, bai sano!* kanpainaren ikurra ikusgai egitea.

GOIERRI-UROLA GARAICO ESIan

Abenduaren 20an, 10:00etatik 12:00etara, Zumarragako ospitalean: **Euskara Planaren ebaluazioaren emaitzak aurkezteko saio orokorra.**



GOIERRI-UROLA GARAICO ESI-AK «11 EGUN EUSKARAZ» EKIMENA- REN KANPAINARAKO BIDEOAREN GRABAZIOAN PARTE HARTU DU


Grabazioa hilaren 17an egin zen Zumarragako ospitalean, eta bertako hainbat langilek eta zuzendaritzakidek hartu zuten parte, Udalaren gonbidapena jaso ondoren.

Bideoa Legazpi, Urretxu eta Zumarragako euskara-zerbitzuen egitasmoa da eta Euskararen Egunaren inguruan aurkeztuko dute, Euskal Herriko 27 entitate eta erakundek hizkuntza-ohituretan eta euskararen erabilera areagotzeko sustatu duten Euskaraldia ekimena girotzen hasteko.

Euskaraldia «11 egun euskaraz» ekimenak helburu zehatza dauka: euskaltzale helduak aktibatzea eta prestatzea, beren eguneroko harremanetan euskaraz aritu daitezen euskara ulertzen duten herritar guztiekin, edo, zehatzago esanda, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra euskaraz aritzea.

AZPIDAZKI, ADMINISTRAZIO- IZKRIBUAK EUSKARAZ LAN EGI- TEN LAGUNTZEKO TRESNA

EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileei, irakasle-ikertzaileei edo herritar orori eguneroko administrazio-idazkiak sortzen laguntzeko helburuarekin berri du [AZPidazki](#) aplikazioa Euskararen eta Etengabeko Prestakuntza-aren arloko errektoreordetzak.



asier martin
Kirurgialaria

julio zevallos
Kirurgialaria

«Oso gutxitan egoten gara elkarrekin, baina, egoten garenean, euskaraz aritzen gara»

Duela hamar urte iritsi zen Julio Zevallos Perutik Euskal Herrira. Zenbait gauzak bere arreta erakarri arren, euskararako interes berezia agertu zuen, eta, hala, hizkuntza ikasteari ekin zion. Euskaltegian jaso dituenak Asier Martin lankidearekin praktikatzen ditu, eta aise mintzatzen da gaur egun. Zumarragako ospitaleko kirurgiako zerbitzuan egiten dute lan biek.

Julio, zerk piztu zizun euskara ikasteko grina?

Julio Zevallos: Euskal Herrira etorritakotan, hasieratik konturatu nintzen euskara oso garrantzitsua dela, bai pazienteekin ondo ulertzeko eta bai haurrekin eskolako gauzetan ondo aritzeko. Emaztearekin eta semearekin etorri nintzen; semeak orduan sei urte zituen, eta ikastolan matrikulatzea erabaki genuen. Euskara jakiteak etxeko lanetarako laguntzen dit, eta, alaba izan dudanez geroztik, are gehiago. Horrez gain, euskaraz jakinda, lehen hitza behintzat euskaraz egiten diot; normalki ezin izaten dut guztia euskaraz egin.

Euskaraz jakiteak zer ate zabaldu dizkizu egunerokoan?

J.Z: Hemen, ospitalean, askok egiten dute euskaraz, eta aprobetxatzen dut pixka bat mintzatzeko, ebakuntza-gelan eta. Ulertzen ez nuenean ere saia-

tzen nintzen, gutxienez, euskaraz agurtzen, eta, pixkanaka, gehiagora egin dut.

Nola hasi zinen euskaraz ikasten, eta gero nondik nola hasi zarete elkarrekin?

J.Z.: Eibarko HABEko euskaltegian eman nuen izena. Egunero ez, baina ahal nuenean agertzen nintzen. Gainera, mintzapraktika talde batean ere izena eman nuen. Gurasoak Berbetan deitzen da, Eibarko egitasmo bat da, eta haurrak jolasean dauden bitartean egiten dugu; parkean, tabernan...

Asier Martin: Nik Julio ez nuen eza gutzen aurrez. Hiru urte daramatza hemen, eta nik hamaika. Bera iritsi bezain laster konturatu nintzen Julio oso interesaturik zegoela euskaraz hitz egitearekin, baina aldi berean ez zuela inor aurkitzen hori lasai eta modu ez zorrotzegian egiteko. Horrela hasi ginen, poliki-poliki, eta zerbitzuko kide batzuk ere bai. Oso gutxitan egoten gara elkarrekin, baina, egoten garenean, euskaraz aritzen gara. Nik Juliori hitz egiten laguntzen diot batez ere; oso abila da baliabide teknologikoe-kin, eta horri etekin handia ateratzen dio. Hitz egiteko orduan, aldiz, zailtasun pixka bat du, eta hori lantzen saiatzen gara.

Jakina da elkarrekin euskaraz aritzen zarete, baina gainontzeko euskaldun langileekin nola egiten duzu?

J.Z.: Ebakuntza-gelan asko egiten dut, eta beste lankideekin ere bai. Niretzat oso garrantzitsua da haien pazientzia: kosta egiten zait hitz egitea, nahiz eta dena ondo ulertu. Nire asmoa hobetzea da, eta horretarako bide bakarra praktikatzeta da.

Zuk lankideen pazientzia eskertzen baduzu ere, haiek ere eskertuko dute zure ahalegina; ez al da horrela, Asier?

A.M.: Zer esanik ez. Hori oso nabarmena da. Niretzat jarraitzeko moduko erdua da Julio. Nik, sarritan —eta berak ere badaki—, bere izaera azpimarratu izan dut, eta besteen artean esan izan

dut nola Perutik etorritako gizonetako bat hasi den euskaraz ikasten. Oso harro sentitzen gara Julioz, eta lagundu besterik ez diogu egin behar. Ez hori bakarrik; Julioen kasua ez da euskaraz hitz egitea bakarrik, baizik eta bere burua eta bere sendia ere gizarte honetan txertatu dira. Eibar herri euskalduna izanda, bere seme-alabak ikastolara eramaten ditu, eta berak ere euskal giroan murgildu nahi du: joaten da elkarrekin, Arrateko gainera zein Ipurura. Hori oso azpimarratzekoa da, eta Julio eredu da alde horretatik.

«Oso harro sentitzen gara Julioz, eta lagundu besterik ez diogu egin behar»
(Asier)

«Nire asmoa hobetzea da, eta horretarako bide bakarra praktikatzeta da»
(Julio)

Perukoa zarela dakiten pazienteek zer esaten dizute euskaraz entzutean?

J.Z.: Eskertzen dute, eta halako konfiantza bat ere ematen die, zaharrenei bereziki. Bitxikeria modura, duela egun batzuk, 20 urteko mutil pakistandar bat etorri zen. Mutila hobeto moldatzen da euskaraz gaztelaniaz baino, eta kontsulta guztia euskaraz egin genuen!

A.M.: Ez da lehendabiziko aldia hori gertatzen dena, Azkoitia eta Azpeitia inguruan pakistandar asko daude eta. Gogoratzen naiz duela urte batzuk beste pakistandar bat operatzen ari nintzela, nola sartu zen haren ama. Amak ez zekien gaztelaniaz eta euskaraz, berriz, bai, eta halaxe moldatu ginen.

Euskaraz ikasteko zaila dela dio zentzuz. Zuri ere hala iruditu al zizkizun?

J.Z.: Ez da portugesa edo frantsesa bezalakoa, baina zailagoak ere badaude; japoniera eta errusiera, esaterako. Euskaraz eta gaztelaniaz hitz batzuk berdin esaten dira, eta alfabetoa ere berdintsua da. Gramatikaren egitura, berriz, ezberdina da, baina ez da hain zaila ere. Gainera, Euskal Herrian egonda, aukera asko daude ikasteko, eta katean ere ikusten da hizkuntza, karteletan eta.

Asier, euskaraz hizketan hasi zinetik hobekuntzarik igarri al diozu Juliori?

A.M.: Bai, egunez egun egiten du hobekuntza. Kontua da elkarrekin egoteko aukera handirik ez dugula, baina, lasaitasunez eta giro samurrean murgiltzen denean, askoz hobeto egiten du. Gure zerbitzuan Espainiako estatutik etorritako jendea ere badago, eta Julio Perutik etorrita lehena izan da euskaraz ikasten. Hori txalotzekoa da, eta ni ere harro nago horretaz. Hemen badugu duela 15 edo 20 urte Espainiako estatutik etorritako jendea, eta haiek ez dute ikasi, ez dutelako nahi izan.

Euskaraz egunez egun hobetzen ari zarela dio Asierrek. Non duzu sabaia?

J.Z.: Pixkanaka ari naiz. Lanerako B2 hizkuntza-eskakizuna eskatzen dute, eta iaz atera nuen. Hortik aurrera, hobetzeko asmoz baina presarik gabe. Nire emaztea osagilea da, eta IVAPeko hirugarren hizkuntza-eskakizuna atera du.

A.M.: Julio bigarren hizkuntza-eskakizuna atera zuenean, esan nien hamaikost urte daramaten batzuei: “Aizue, Julio dagoeneko atera du bigarrena, ea zuek”. Zoriondu egin zuen jendeak, eta kanpotik etorritako jendearen artean aitzindaria izan da, eta erreferentea. Atzo bertan, ebakuntza-gelako kolonbiar anestesista euskarazko ariketak egiten ari zen, eta Juliori galderak egiten zizkion.

gramatika

HIZKUNTZA-BALIABIDEAK

«...etorri **egin** ahal izateko»; «...eta esan **egin** zuen ez zela ostera azalduko»; «...joan **egin** nahi izango balu»; lehen ekitaldia bukatu **egin** berri da...

Txoko honetan beste behin ere arituak gara **egin** horren erabilera desegokiaz, honezkerio izurritzat ere jo daitekeenaz. Ez da izaten euskara ikasten hasi berrien ohiko akatsa, ez eta euskara atzendu samartuta dutenena ere; aitzitik, euskara hobean **egin** nahi dutenen jardunean atzematen da maiz. Zaila da, nonbait, nola erabili behar den azaltzea. Hor egongo da akatsa, inon egotekotan.

Esan bezala, Osatuberrin saiatu ginen argi pittin bat egiten auzi horretan, hain zuzen ere, buletinaren [15. zenbakian](#), eta, orain, orduko haren osagarri modura, [hiru.eus](#) web-orriko azalpen bat dakargu hona, moldatuta, aditzari 'egin' noiz eranstean zaion hobeto ulertzen lagundu dezakeelakoan.

MINTZAGAIA, IRUZKINA ETA GALDEGAIA

Komunikazio-ekintzaren helburua informazioa trukatzeko da. Honela, perpaus bat erazten dugunean, informazio berria ematen ari gara. Horretarako gauza bi zehaztu behar ditugu: zertaz ari garen eta gai horretaz daukagun informazioa zein den. Horren arabera, perpaus guztietan bi atal nagusi bereiz ditzakegu: mintzagaia eta iruzkina.

MINTZAGAIA

Mintzagaia hizketaren edo solasaldiaren gaia da. Perpausa ezin da modu isolatuan adierazi, alegia, solasaldi batean perpausa izateaz gain, testutik at dauden bestelako elementuak ere badira.

Bi solaskide hizketan ari direnean egoera oso bat sortzen da, hau da, jadanik biek eza gutzen dute esaldiak barneratzen duen informazioaren atal bat eta, horregatik, isilpean utzi ahal dute, adibidez: *Non dago katua? (katua) Ohe azpian (dago)*. Baina informazio berria ezin da isilpean gorde.

IRUZKINA

Iruzkina, perpausaren beste elementua da: mintzagaiari buruz ematen den informazio berria.

Mintzagaia ez bezala, iruzkinak beti agertu behar du, bestela ez dago komunikazio eraginkorrik. Zenbait kasutan, perpaus osoa da iruzkina, esaten den guztia berria dena, adibidez: *Zer gertatu da? Jonek istripu bat izan du*. Horrelakoetan, ordena ez-markatua erabiltzen da (*subjektua, objektua eta aditza*). Hemen ere bi multzo daude:

- **Iruzkin hanpatua edo galdegaia** (garrantzitsuena da eta aditzaren aurrean kokatzen da): *Inor joango da? Neu joango naiz lñakirekin*.
- Gainerako osagaiak (informazio berria izan arren, atzean doa): *Nor joango da? Neu joango naiz lñakirekin*.

ADITZA GALDEGAI

Euskaraz, perpausaren osagaiak, normalean, duten edo eman nahi zaien garrantziaren arabera ordenatzen dira, eta osagaiak garrantzitsuena aditzaren aurrean jartzen da: galdegaia. Batzuetan aditza da azpimarratu nahi dugun osagaia, eta, hortaz, galdegaia aditza dela adierazteko bi era desberdinetan **egin** daiteke, lehenengoa aditz perifrastikoekin eta bigarrena aditz trinkoekin egiten da.

Aditz perifrastikoak

Galdegaia aditza bera denean **egin** aditza bezalako beste elementu bat tartekatu behar dugu azpimarratzeko, adibidez: Irabazi **egin** dugu.

Aditz trinkoak

Bizkaieran oso arrunta den egitura bat aditza bera errepikatzea da: *Eguna joan doa / Edaria ekarri dakart*.

Egun nahiko zabaldua dago beste egitura hau: *Jakin badakit ondo egin dudala*.

agenda

52. DURANGOKO AZOKA

Abenduaren 6tik 10era.

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO II. DEIALDIKO AHOZKO PROBAK

Abenduaren 14 eta 15ean, EAEko hiru lurraldeetan.

[web orria](#)

AITORMEN-JARDUNALDIA

Osakidetzaren euskararen normalizazioan eta hizkuntzaren erabileraren sustapenean nabarmendu diren pertsona, egitasmo edo taldeen aitormena.

Abenduaren 15ean, Gasteizen, Zuzendaritza Nagusian.

Egitaraua:

11:00 Osakidetzako Zuzendaritzaren harrera-mezua.

11:15 Aitormena jasoko duten proiektuen aurkezpena.

12:15 Miren Dobaran Urrutia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordearen hitzaldia.

13:00 Oroi-garrien banaketa eta ekitaldiaren amaiera.

OEE, OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEAREN XXVIII. BILTZARRA: «KOMUNIKAZIOA- INKOMUNIKAZIOA».

Urtarrilaren 15ean bukatuko da ahozko komunikazioak eta posterrak bidaltzeko epea.

Biltzarra 2018ko maiatzaren 18 eta 19an izango da, Arantzazun, Gipuzkoan.

[informazioa](#)

CAF-ELHUYAR SARIAK

Lanak 2018ko otsailaren 15era arte aurkez daitezke.

Zientzia eta teknologiaren arloko gaien eta ikerketen euskarazko gizartratzea aitortzea eta bultzatzea dira sariketaren helburuak.

[informazioa](#)

